

Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak bost eskaera egin dizkie munduko agintariei COP26ri begira.

- “Oraindik garaiz gaude: gizartearen biziraupena gaur hartzen ditugun neurrien araberakoa da” - Francesco Rocca Gurutze Gorriaren Elkarten Nazioarteko Federazioko presidentea eta Peter Maurer Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeko presidentea.
- Elkarte nazionalak, Gurutze Gorriak, botere publikoen laguntzaile gisa esparru humanitarioan, funtsezko eginkizuna betetzen dute krisi klimatikoaren aurkako borrokan.

2021eko azaroak 1. COVID-19aren pandemiak eta krisi klimatikoak gaur egungo bizitzaren eta gizartearen alderdi guztiei eragiten die, ongizate fisiko eta mentala, bizibideak eta ekonomia barne hartuta. **Pertsona behartsuenek eta ahulenek, krisi klimatikoa gutxien lagundu dutenak izan arren, krisi horren ondorio suntsitzaileenak pairatzen dituzte.**

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko (COP26) alderdien 26. bilkuraldiaren aurreko asteetan, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak munduko liderrei eskatu die berehala har ditzatela **berotegi-efektuko gas-isuriak azkar eta zorrotz** murrizteko neurriak, eta **klima-aldaketaren ondoriozko berehalako ondorioen aurrean lehenbailehen esku hartzea** ere, COVID-19aren pandemiak planteatutako krisitik ateratako irakaspenak kontuan hartuta.

Horregatik, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak **bost eskaera nagusi** bidaltzen dizkie munduko liderrei:

1. **Pertsona ahulenengan zentratutako arretaren bermea:** pertsona ahulenen beharrak lehenestea, baztertutako taldeak, krisi-egoeran dauden pertsonak eta lekualdatutako pertsonak barne hartuta. Arriskuak, ahuleziak eta erresilientzia handiagoa izateko gaitasuna ulertzea, eta informazioa jasotzen dutela eta tokiko, estatuko eta munduko plan eta erabakietan sartuta daudela zaintzea. Funtsezkoa da erabakiak inklusiboki hartzea maila guztietan.

- 2. Herrialde eta komunitatea ahulenetara egokitzeko neurriei buruzko finantzaketa handitzea:** egokitzapenaren arloan egiten diren ezinbesteko ahaleginekin batera, egokitzapen-neurriei laguntza irmoa eman behar zaie, oraindik funts eta lehentasun nahikorik ez baitute.
- 3. Prestaketan inbertitzea, ekintza prebentiboa eta goiztiarra sustatzeko.** Kalte eta galeren lekuko gara orain ingurune klimatiko lurrunkorrageo batean. Horrela, a posteriori erreakzioa ez da nahikoa izango horrelako krisi baten aurrean. Sektore guztien zeharkako prestaketan eta arriskuen analisisian inbertitu behar da, balizko klima-hondamendiei aurrea hartzeko eta neurri goiztiarrak hartzeko.
- 4. Munduko konpromisoak tokiko ekintzetan zehaztea.** Nazioko eta munduko ekintza-planek ez dute arriskuen eraginpean dauden pertsonen autonomia bultzatzen, tokiak tokiko neurri eraginkorrak har ditzaten. Funtsezkoa da tokiko erakunde eta instituzioei laguntzea, hala nola, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Elkarte Nazionalai, erakundeen gaitasunetan inbertituz eta egokitzapen-neurrietarako eta erabaki-prozesuetarako finantzaketa eskuratuz.
- 5. Ingurumena babestea, besteak beste, nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatuz.** Ingurumenaren degradazioak ahuleziak larriagotzen ditu. Nazioarteko zuzenbide humanitarioak ingurune naturala babesten du eta ingurumenaren degradazioa mugatzen du. Nazioarteko zuzenbide humanitarioa betetzeak herritar zibilei eragindako kaltea prebenitzen du, eta horrek lotura handia du arma-gatazken ingurumen-degradazio banaezinarekin.

Mundu osoko komunitate behartsu eta ahulek krisi konkomitante ugari dituzte. Muturreko fenomeno meteorologikoen ondorio metatuek, elikagaien segurtasunik ezak, COVID-19aren pandemiak eta gatazkek milioika pertsonaren bizitza arriskuan jartzen dute eta aurrekaririk gabeko premia humanitarioak sortzen dituzte. Klima-aldaketak gero eta ondorio suntsitzaileagoak dituzten arriskuen biderkatzaile gisa jarduten du. Pandemia hasi zenetik, klimarekin lotutako hondamendiek ia 139 milioi pertsona hil dituzte. Klima-aldaketaren ondorioen aurrean ahulenak diren hogeita bost herrialdeetatik hamalau gatazketan murgilduta daude. Hala ere, klimarekin lotutako finantzaketa gutxien jasotzen duten herrialdeak eta erkidegoak dira. Beraz, premiazkoa da egoera aldatzea.

Elkarte nazionalak, **Gurutze Gorriak**, botere publikoen laguntzaile gisa eremu humanitarioan, funtsezko eginkizuna betetzen dute borroka horretan; **horregatik**, **'Carta sobre el clima y el medio ambiente'** izenpetzearekin bat egin dute, **klima-krisiari irtenbideak emateko konpromiso sendoak hartzeko**.

Zertan datza 'Carta sobre el clima y el medio ambiente'?

Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Federazioaren Gobernu Batzordeak 'klimari eta ingurumenari buruzko gutuna' onartu zuen 2021eko maiatzaren 20an. Gutun horrek erakusten du erabaki irmoa hartu dela **klimarekin lotutako neurriak sustatzeko eta areagotzeko, bai erakundearen barruan, bai, oro har, sektore humanitarioan.**

Horren bidez, honako hauek islatu nahi dira: batetik, gero eta premia humanitario handiagoi aurre egiteko esku-hartzeak indartzea, eta, bestetik, klima- eta ingurumen-krisien ondorioei aurre egiteko pertsoneri ematen zaien laguntza indartzea, Gurutze Gorriaren lanaren ingurumen-jasangarritasuna optimizatzea, eta, bestetik, berotegi-efektuko gasen emisioak azkar murriztea.

Gutuna Nazioarteko Mugimenduaren **esku-hartzeak bideratzeko** asmoen eta printzipioen dokumentu bat da; Gurutze Gorriko Elkarte Nazionalen prozesu parte-hartzaile baten eta ekintza baten bidez lortu da, klima- eta ingurumen-krisiari aurre egiteko eta **konponbidearen parte izateko**, non beste GKE eta erakunde batzuk atxikitzea bilatzen den batasun komun bat izateko.

Helburu hauek ditu, besteak beste: klima-krisiari eta ingurumen-krisiari aurre egiteko ekintza kolektiboa bultzatzea eta orientatzea; **esku-hartze humanitarioan 250.000.000 pertsona lortzea**; Gurutze Gorriko Elkarte Nazional guztiek proiektu eta ekintza guztietan ingurumen- eta klima-arriskuak 2025a baino lehen lantzea; berotegi-efektuko gasak murrizteko irizpideak eta helburuak ezartzea; Gurutze Gorriko 100 sozietatek gutxienez 2025a baino lehen esku hartzeko planetan arriskuak baloratu izana.

Oinarrizko 7 printzipioen bidez, Gurutze Gorriaren konpromisoa artikulatzen da:

1. Gero eta premia humanitario handiagoen aurreko erantzuna indartzea eta pertsoneri laguntzea klima- eta ingurumen-krisien eraginetara egokitzen.
2. Bere lanaren ingurumen-jasangarritasuna maximizatzea eta berotegi-efektuko gasen emisioak azkar murriztea.
3. Tokiko eragile eta komunitateen lidergoa hartzea.
4. Klima- eta ingurumen-arriskuak ulertzeko gaitasuna handitzea, eta ebidentzian oinarritutako irtenbideak definitzea.
5. Lankidetzan aritzea sektore humanitarioan eta beste batzuetan, klima- eta ingurumen-ekintza indartzeko.
6. Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren eragina erabiltzea klima-ekintza eta ingurumen-babes premia- eta abizio handienekoak mobilizatzeko.
7. Helburuak prestatzea eta aurrerapena ebaluatzea, konpromisoak abian jarri ahala.

